


Bai neskek
bai mutilek
galdu dute
asteburuan ▶ 2



«Irakurketa ezberdinak» istiluen aurrean

LIZARTZA ▶ Pasa den asteburuan ertzaintzak indarra erabili zuen EAEren prentsaurrekoaren aurka

ERABAKIA ▶ Herria Espainiako Udalerri eta Probintzien Erakundearen sartzea onartu dute ▶ 6



IRURA ▶

Balorzio «baikorra» egin dute jaien lehen asteburuan

Marimi Ugalde alkateak «oso ondo» joan dela azaldu du ▶ 4

Gorritiren animaliak. A. OTEZABAL

«Giro aparta» Aitzolen 25. urteurrenean

TOLOSA ▶ 70 lagun bildu ziren herenegun Zerkausion bazkaria egiteko; honekin eman zioten amaiera Kultur Asteari ▶ 3

ASTEASU ▶

«Jende ugari» bildu du Asteasuko azokak, 56 postuekin

Olaia eta Garazi izeneko saskiak irabazi zuen perretxiko lehiaketa ▶ 4

LEITZA ▶

Bengoetxea eta Barriola, San Mateon irabazle

Jadanik bi torneo irabazi dituzte ▶ 5



HITZAren egoitzetan salgai

TOLOSA ▶ FUTBOLA

Tolosa CFko mutil nahiz neskek ez dute garaipenik lortu

Mutilen taldeak 1-0 galdu zuen Zamudioaren aurka igandean; neskek berriz, 2-3 Zestoaren kontra, larunbatean



Tolosa CF taldeko jokalariek Berazubiko futbol zelaiaren jokaturako partida batean. M. SOROA

ESTI EZEIZA

Hiru puntuak eskuratu gabe itzuli da asteburu honetan Tolosa CFko lehen taldea. 1-0ko emaitzarekin, aurre hartu zieten Zamudiokoek larunbatean. Norgehiagoka eta ikuskizun «aspergarria» izan zen bertaratu zirentzat. Saioko gol bakarra bizkaitarrek sartu zuten, penaltiz. Partidan zehar aukera gutxi izan zituzten bi taldeek ere, eta saioa oso lasai joan zen.

Kepa Mendizabal entrenatzailearen esanetan, «ezin zaio inorri aitzakiarik atera, partida txarra egin baikenuen». Entrenatzaileak azaldutakoaren arabera, «etxean oso ondo aritzen badira ere, kanpoan ez dute asmatzen jokalariek». Kanpoan jokaturako hiru partidetatik,

bat bera ere ez dute irabazi. Hau da, Amorebieta, Zarautz eta Zamudioaren aurka galdu egin dute. Bestalde, adierazi zuen, «oso gustura» dagoela jokalariekin, eta «ahal duten guztia» ematen dutela partidetan, baina ez dakiela non dagoen arazoa. «Entrenamenduetan lan handia egiten dute eta asko saiatzen dira, baina kanpoan nahiko lan izaten dugu irabazteko» zioen Mendizabalek.

Asteburuko jardunaldien ondoren, 16. postuan da Tolosa. Orain arte jokaturako bost partidetatik bakarra irabazi dute, Lagun onak-en aurkakoa hain zuzen ere. Beste bat berdindu, eta azkenik, lehen aipatu bezala, hiru galdu.

Hurrengo hitzordua etxean izango dute urdinek. Gernika

izango dute aurkari igandean. Hauek Tolosako puntu berdinekin, sailkapeneko azken aurreneko postuan daude, 19.ean. Beraz, aukera ona izan daiteke tolosarrentzat, etxean jokatzean, aukera ugari baitituzte irabazteko. Honek, gainera, sailkapenean gora egitea ahalbidetuko liekete.

Neskek ere, porrot

Tolosako nesken taldeak partida ona jokatu arren, ezin izan zuten Zestoa garaitu, eta 2-3ko emaitzarekin galdu zuten. Saioren lehendabiziko zatian galtzen hasi ziren eskualdekoak. Hala ere, lehen zatia amaitzerako markagailuan 2-1eko jar-tzea lortu zuten. Aldageletara markagailua beraien alde zutela sartu ziren beraz. Dena den, bigarren zatian gauzak aldatu ziren eta zestoarren zortea beraien aldeko izan zuten, eta bi gol sartzea lortu zuten. Bestalde, Mikel Urbizu Tolosako entrenatzailearen esanetan, «taldea ondo aritu arren, atezainik ez izateak eragina izan zuen».

Asteburukoaren ondoren sailkapenaren erdi aldean daude Tolosako neskek. Hurrengo partida igandean izango dute, etxean. Aurkari Lasarteko Ostadar taldea izango dute.

TOLOSALDEKO HITZA.INFO

Zeuk idatzi. TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZAKO webgunean zure inguruan gertatzen diren albiste berri emateko aukera duzu. Informazio interesgarrien bat baldin baduzu, atal honetan idatzi eta honen berri emango da gure egunkarian.

iragarki laburrak ▶

SALGAI

Egurra. Sutarako pago egur lehorra salgai. Etxera entregatzen da. Telefono zenbakia: 615 75 57 62.

LANA

Tabernaria. Amasako Iturri-goxo jatebean tabernari bat behar dugu arratsaldeetarako. Deitu 943 69 12 10ra

GUTUN@K ▶

Ez, Amezketako alkatea

Ez, Jesus Ifurrita, ez da egia zuk irailaren 19an HRTza egunkarian esandakoa.

Bertan, karguak banatzeko erantzunen zain zeudela diozu. Gezurra! Kargu guztiak orain arte zuek hartu dituzue (Tolomendi ezik). Hitz polit asko esaten dituzu baina erabakia beti zure gain izanik.

Egongo diren proiektuetan, denon artean hitz egin eta erabakita dauden hiru taldeen artean hartuko zela hitz eman zenuen, baina azken plenoko adibidea dugu garbiena. Egun horretako gaia ZAZPI-TURRIKO ordezkaria aukeratzeari, eta zuk, nola ez, beste taldeko inorri iritzia galdetu aurretik, zeure burua ordezkari izendatzen saiatu zinen. Beste bi taldeek (ANV eta AEL), beraz gehiengoak, beste zinegotzi bat aukeratu zuten eta hala ere, ezin onartu gure alkateak hori! Gainera esan ere, bere gustuko zerbait aukeratzeko ez denean, beste egun bateko bilerarako uzten duela.

Azken legealdiko politikari buruz, batzordeetan funtzionatu nahi zenuela baina guk ez genuela onartu diozu. Hori da hori memoria! Nahiko txarra esango genuke, hain denbora gutxian gauzak ahazteko. Baina lasai alkate jauna, guk gogoraraziko dizugu eta! Noski guk deitzen zuekuzugala bileretarako, baina zuek indarrik gabe udaletxera ez zenuela joan behar esaten zenuen. Karguak besterik ez zenuen hartu nahi.

Begira guk berriz, udaletxera joaten gara, edo horrela esan badaiteke, ez baitauekuzugala pleno aretoko sarbiderik, ez eta gure taldeko zinegotziak

ere!... Eta daukagun indarra odo zalantzakoa da, dagoeneko, ikusitakoa ikusirik.

Jesus, 190 etxebizitza asko direla esaten duzu, eta hori akaso izan daiteke edo ez. Baina ezin duzu ahaztu ere arauak ez direla epe motzerako egiten, baizik urte askotarako (aurreko arauak 20 urte iraun ditu).

Hala ere, harrিতuta utzi gaitu asko direla esateak, gure legealdiaren aurretiko legealdian, hau da, zuten taldekoak gobernuaren zeudela, eman zitzaizkien hasiera arau hauei. Eta azpimarratu nahiko genuke, zuek 265 etxebizitza onartu zenuetuztela. Orduan gure galdera da, zergatik jarri zenuetuzten bere garaian 265 etxebizitza, orain 194 asko baldin badira? Eta, jakinik aurreko legealdian Ametzta taldeak bere iritzia adierazteko zuten erraztasuna HITZA egunkarian (bera-ra inoiz idatzi hunkigarriekin), zergatik ez zenuen inoiz kopuruetan etxebizitzaren kopurua gehitxo iruditzen zitzaizela?

Beraz, amaitzeko, azalpen txiki bat eman nahiko genuke, zuek proposaturako 365 etxebizitzetatik, 194 etxebizitzetara jaitsi genuen. 194 etxebizitza hauetatik, 40 inguru, lehengo etxe zaharrak eraberrituta izango liriteke, 104 etxebizitza berri Larraitz bidean eta Jauregi Haundiko lursailean doaz. 50 etxe geldituko liriteke hurrengo urteetan zehar beharra izanez gero egiteko.

Ez, alkate, ez, esaten duzu tentsioak gutxitzea zatorzela, tolerantea zarela, baina orain arteko jarrerarekin oso bide txarra jorratzen ari zara.

JOSE ANTONIO ARTOLA, JOSE MARI GOIKOETXEA ETA JULIAN SAGASTUME(AMEZKETARROK ELKARLANEAN-EN IZENEAN) ▶ AMEZKETA

ALEGIA ▶

Bilera, dantzako ordutegiak finkatzeko

Alegiko Dantza Taldekoak ikasturte berria hastera doaz. Ikastaro hauek sei urtetik gorako haurrentzat dira. Hala, jardunaldian izena eman dutenentzat bilera izango da bihar. Bertan entseguen ordutegiaz hitz egingo dute, eta hauek finkatuko dituzte. Batzarra arratsaldean izango da, 19:30ak aldera. Hau, Kultur Etxean egingo dute. Gaztetxo hauen dantza ikastaroak datorren astean hasiko dira, urriaren 3an hain zuzen ere.

IKAZTEGIETA ▶

Ezkortasunari aurre egiteko hitzaldia, etzi

Etzi arratsaldean hitzaldia izango da Ikaztegieta Kultur Etxean. Mintzaldiaren izenburua *Pentsamendu baikorra, tristurari eta ezkortasunari aurre egiteko* da. Hitzaldi hau adineko pertsonen zuzenduta dago batik bat, eta ondorengo gaien inguruan mintzatuko da hizlaria: norbere pentsamendu ezkorraz ohartzea eta uxatzen jakitea, iraganeko eta pentsamendu ezkorrak, kezak eta abar geldiarazteko erlaxazio teknikak.

KIROLAK ▶

Denboraldi berriko abonua salgai daude

TAKEk, berrikuntza gisa, zozketak egingo ditu partidetak atsedendietan

ERREDAKZIOA

Urtero bezala eta zaleek klubari egiten dioten diru laguntza bezala, TAKEk denboraldiko abonua ateratu ditu. Aurtengoan, berrikuntza gisa, senior taldearen partiduetako atsedendietan zenbait opari zozketatuko dituzte: afariak, saskiak, kamixetak... Honetarako, babesleen laguntza eskertzen du taldeak. Abonua 10 eurotan daude salgai eta senior taldeko edozein partaidek ditu. Bertan bi zenbaki daude, eta horrela, saria lortzeko aukerak bikoizten dira.

TELEFONOAK ▶

Larrialdiak. ((112)) Osasuna.

- ▶ **Alegialdea.** Osasun z.: 653212
 - ▶ **Anoeta-Alkiza-Hernialde.** Medikua: 65 23 39
 - ▶ **Asteasu.** Medikua: 692423
 - ▶ **Baliarrain.** Medikua: 889003
 - ▶ **Berastegi-Elduain.** Medikua: 683361
 - ▶ **Bidegoian.** Medikua: 681134
 - ▶ **Ibarralde.** Osasun etxea: 672411
 - ▶ **Ikaztegieta.** Medikua: 653329
 - ▶ **Irura.** Osasun zentroa: 690720
 - ▶ **Leitza.** Osasun z.: 948 510800
 - ▶ **Orendain.** Medikua: 655595
 - ▶ **Orexa.** Medikua: 682228
 - ▶ **Tolosa.**
 - ▶ Anbulatorioa, larrialdi: 461111
 - ▶ San Esteban: 006800
 - ▶ Gernikako arbola: 006900
 - ▶ Amaroako dispen.: 672637
 - ▶ Asunzion klinika 675799 - 67 53 90 (larrialdiak)
 - ▶ **DYA:** 672536
 - ▶ **Gurutze Gorria:** 674888
 - ▶ **Villabona.** Anbulat.: 006970
 - ▶ **Zizurkil.** Aiztondo zerb.: 693930
- Garraioak.**
- ▶ Renfe: 902 24 02 02
 - ▶ Donostiako autobusa: 361740
 - ▶ Tolosaldea bus: 650621
 - ▶ Leitzaran autob.: 948 221015
 - ▶ Taxia: 670420
 - ▶ Taxia (Leitza): 608 873016
- Besteriak.**
- ▶ Ertzaintza: 538820
 - ▶ Tolosa-Udaltzaingoa: 675858
 - ▶ Tolargi: 650016
 - ▶ Iurramendi egoitza: 670325
 - ▶ Tolosa gasa: 675320

EUSKARA ▶

«Giro bikainean» ospatu dute Aitzolen 25. urteurrena

70 lagun inguru bildu ziren Zerkausian egin zuten bazkarian; Kultur Astea amaitu arren, ekitaldi gehiago ere izango dira



Jende ugari ibili zen kalejiran goizean zehar, Alde Zaharreko kaleak alaituz. HITZA

INIGO TERRADILLOS

«Giro bikaina» magusitu zen Aitzol Udal Euskaltegiaren 25. urteurrenaren harira herenegun Zerkausian egin zuten bazkarian. Bazkariarekin pasaden aste osoan zehar antolatuta zuten Kultur Asteko egitarauari behar bezalako amaiera eman ahal izan zioten.

«Espero baino jende gutxiago izan arren», pozik egoteko moduan daudela adierazi du Mikel Uzkudun Aitzoleko zuzendariordeak. 70 lagun inguru bildu ziren bazkari legea egiteko, eta horien artean alor guztietako jendea izan zen, 25 urte hauetan zehar euskaltegitik igaro diren ikasleak edota irakasleak, eta gaur egun daudenak ere; Tolosako arpegi ezagunak ikus ahal izan ziren bazkarian, eta baita Udaleko ordezkariak eta alderdi politiko desberdinetako kideak ere. Hau guztia kontuan hartuta Udal Euskaltegiko arduradunek balorazio positiboa egin dute; «Giro bikaina sortu zen, aspaldiko ezagunak bildu eta solasean aritzeko aukera izan baikenuen, topaketa moduko bat izan zen». Giro on horren seinale da 19:00ak ingurura arteko bazkalostea egin zutela Zerkausian bildu zirenek, eta tarte horretan izan zen dantza egitera animatu zenik ere.



70 lagun inguru bildu ziren Zerkausiko bazkarian. HITZA

Eguna, ordea, ez zen bazkariarekin hasi, jai giroa eguerdi aldera hasi zen Tolosako kaleetan. Hain zuzen ere, Euskal Herria plazan egin zuten lehendabiziko hitzordua. Izan ere, duela 25 urte atzera eginez gero, bertan kokatu zuten euskaltegia. Trikitixa doinuak plazan zabaldu ostean, kalejiran Plaza Berriraino joan ziren. Bertan, euskaltegiaren bigarren egoitzarekin egin zuten topo, Euskal Herria plazan izan eta gero, Plaza Berrira pasa baitzuten. Azkenik, hain giro ederra jarri ondoren, egun euskaltegia dagoen lekura joan ziren, Pablo

Gorosabelgo egoitzara, hain zuzen. Modu honetan, 25 urteetan zehar Aitzol Udal Euskaltegiak izan dituen kokaguneak gogoratu zituzten. Azken kokalekutik kalejiran abiatu ziren Zerkausira bertan bazkaltzera.

Urteurreneko ekitaldiak

Aitzolen 25. urteurrenarenagatik antolatutako Kultur Astearen egitaraua zuzenean dira eta eskerrak eman nahi dizkie parte hartu dutenei. Halaber, ekitaldiak ez direla hemen bukatzen eta urtean zehar gehiago izango direla azaldu dute.

KIROLAK ▶

Oargik mendi irteera antolatu du astebururako

Oargi Mendi Elkartek irteera antolatu du datorren astebururako, hilaren 28, 29 eta 30erako. Bujaruelo balarara, Pirinioetan. Ostiralean, Tolosatik Bujarueloko aterpetxera joango dira; larunbatean, Otal (2.709 metro) igoko dute. 1.490 metroko desnibela du, eta 4 ordu eta 15 minutu behar dira gutxi gorabehera igotzeko. Igandean, Bernatuara (2.715 metro) igoko dute; 1.390 metroko desnibela du, eta 3 ordu eta 50 minutu behar dira gailurra igotzeko. Informazio gehiago eskuratu nahi duenak edota irteera honetan parte hartu nahi duenak 637 830380 telefono zenbakira deitu beharko du.

ERLIJIOA ▶

Katekesian izen-emateko bilera, gaur

Santa Maria Parrokiako aretoan gaur, 18:00etatik 19:00etara izango da aukera ikasturte berriari katekesian parte hartuko duten haurrek matrikulatzeko. Haurrek ez ezik, gurasoak ere joatea gomendatu dute. Katekesia urriaren 9an hasiko da, 18:00etan ohikoa den bezala.

GIZARTEA ▶

Gidatze eraginkorraz ikasteko

Gidatze eraginkorri buruzko ikastaroetan izena emateko aukera dago oraindik. 943 692536 telefono zenbakira deituta, 09:00etatik 12:00etara. Izan ere, Mugikortasun Iraukorraren Astearen baitan, bi ikastaro antolatu dituzte: bata urriaren 10ean, asteazkena, Tolosako Kultur Etxean 17:00etatik 21:00etara, eta bestea, urriaren 11n, osteguna, Anoetako udal-etxean, 16:00etatik 20:00etara. Lau orduko iraupena izango dute: ordu bete nola gidatzen dugun ikusteko, bi ordu teoriko erregai gutxiago kontsumituz eta gure ibilgailuaren bizitza luzatuz gidatzen ikasteko eta beste ordu bete, gure gidatzeko modu berriaren emaitzak ikusteko. Izena emateko azken eguna hilaren 28an, ostiral honetan, izango da.

ASTEASU ▶ AZOKA

Jende asko eta giro ona izan dela diote antolatzaileek

Olaia eta Garazi izenekin aurkeztutako perretxiko saskiak eraman zuen Izurtzu jatetxeak ordaindutako 80 euroak



Asteasuko frontoian «giro ona» izan zen egun guztian zehar joaldunek lagunduta. JERONIMO OTEGI

IMANOL GARCIA

Oso balantze ona egin dute herenegungo Asteasuko azokaren antolatzaileek. «Jende asko izan zen bai goizez eta bai arratsaldean», azaldu du Ainhoa Etxabe udal dinamizatzaileak. Aurreikusita zeuden ekitaldi guztiekin «gustura» agertu dira. Guztira 56 postu egon ziren eta «giro ona izan zen nagusi».

Ekitaldi horietako bat perretxiko lehiaketarena izan zen. Lau saski izan ziren lehian eta Olaia eta Garazi izenekin aurkeztutakoak irabazi zuen saria. Beste saskiak Urkidizar baserriak, Ugarte baserriak eta Lontxo Sagastumek aurkeztu zituzten, guztiak asteasuarrak.

Olaia eta Garazik 80 euro eraman zituzten, hain justu, Asteasuko Izurtzu jatetxeak en-

kantean ordaindutakoa. Aurten saskiak askoz hobetoak izan baziren ere, enkantean lortutako diru kopurua baxuagoa izan zen. «Laz lehorte handia egin zuen eta aurten perretxikoak biltzeko baldintza hobetoak dira», azaldu du Etxabek. «Horregatik orain merkatuan gutxiago ordaintzen da perretxiko kilo eta horrek ere eragingo zuen enkantean». Bestalde, aurreko urtean bi bakarrik aritu ziren enkantean eta nolabaiteko lehia sortu zen beraien artean eta horregatik diru kopuruak gora egin zuen.

Goizean zehar, lehenengo aldiz esne behien erakustaldia antolatu zuten. «Kuriosoa izan zen», azaldu du Etxabek, «albaitari batek behien ezaugarriak erakusten joan zen. Baserri mundua ezagutzen ez due-

narentzako aukera oso ona izan zen». Asteasuko Ondartze-Bitarte, Arretxe, Itxurtasaro eta Bulano baserriek hartu zuten parte.

Arratsaldeko ardi txakur lehiaketan Eusebio Bengoetxea bizkaitarrak bere Lagun txakurrarekin irabazi zuen. Aipatzekoa da 15 urteko mutil batek ere parte hartu zuela eta hirugarren postua lortu zuela.

Ekitaldien artean hunkigarrienak Udalak egindako bi omenaldiak izan ziren. Bata herriko 13 emakumeri, urtero taloak egiten aritu baitira boluntarioki. Euskal zapi bat oparitu zien bakoitzari. Bestea maiatzean hil zen Matxine baserriko Joxepa Urretabizkaiarentzako izan zen. Azokaren bultzatzaileetako bat izan zen. Udalak bere familiari oroigarri bat eman zion.

IRURA ▶ JAIK



Gorritiren animaliek in aritu ziren gazteboenak jolasean. A. OTEZABAL

«Oso ondo» joan da jaien lehen asteburua

I. GARCIA

Irurako jaien lehenengo asteburua pasatu da. Marimi Ugade alkateak orain arteko ekitaldiak «oso ondo» joan direla nabarmendu du. Asteburuan «giro oso ona izan dugu», azaldu du Ugaldek. Jende asko, herrikoak zein kanpokoak, joan direla ekitaldietara adierazi du alkateak.

Igande gauean jendea «goiz erretiratu» bazen ere, egunean zehar «oso giro ona» izan zela azaldu du Ugaldek. «Halako eguraldia egiten

zuen... Herri kirolak amaitu eta gero jendeak eserita jarraitzen zuen egiten zuen giroaz gozatzen». Gero eta haur gehiago dagoenez Iruran, haurrei zuzendutako ekitaldiek arrakasta handia izaten dute.

Larunbata euritsua izan bazen ere, ekitaldietan jende asko izan zen. Bereziki aipatzekoa, gazteek etxeko-etxeko kalejira berreskuratuta dutela.

Datorren ostiralean, arratsaldean ekingo diete berriro jai-ekitaldiei, asteen zehar atseden hartu ondoren.

ANOETA ▶ INGURUGIROA

Kontsumo gutxiko bonbilen banaketa bihar

ERREDAKZIOA

Energiarako Euskal Erakundeak abian jarri du kanpaina bat energia berriztagarriak sustatzeko. Helburu horrekin 200 sorta banatuko dituzte bihar Anoetan, produktu hauekin: kontsumo gutxiko bonbilak, etxeko energia-aurteztari buruzko gida, ibilgai-

luzentzako biokarburantei buruzko informazio-liburuxka eta autoen doako gidatze-ikastaroer buruzko informazio-liburuxka (ikastaro teoriako-praktikoak gutxiago kutsatzeko gidatzen dugunean).

Banaketa bihar goizean zehar egingo dute, Abraham Olano kiroldegi aurrean, 09:30etik 12:30era.

“Natura bezain eraginkorra”

TOLOSA MOTOR, S.A.
San Esteban auzoa, 14-A
20400 Tolosa (Gipuzkoa)
Tel.: 943 65 03 37 Faxa: 943 65 29 38
tolosa@tolosa.redpeugeot.com

PEUGEOT 308 berria

Bai Euskarari Ziurtagiria

hitza

elkarlana

lehiakortasuna

balio erantsia

erantzukizun soziala

hitza

VI. HITZA ARGAZKI LEHIAKETA ▶

Orain... Zurea da hitza

HITZA Argazki Lehiaketako zortzi finalistetatik irabazlea erabakitzea errazagoa egite aldera, hementxe dituzue epaimahaiak aukeraturiko zortzi finalistak, kolorez



Jon Pagola (Tolosa). «Marokkoko Asilah da herria eta koben hondartza deitzen diote lekuari».



Leire Zabala (Tolosa). «Uda honetan egun batzuk pasa ditugu Soria aldetik. Autotik jaitsi behar izan nuen eguzki-lore soro handi honi argazki bat ateratzeko. Dena eguzki-lorez beteta zegoen!»



Nerea Lopetegi (Leaburu). «Norvegiako fiordoan argazkia bidaltzen dut, kaio batek argazkirako pose eder bat eskaini zigun».

Amaia Sagasti (Tolosa) .
«Argazki hau Ganges ibaiari ateratakoak dira, jendeak bere bizitza bertan egiten zuela»



Juanjo Esnaola (Anoeta). «Getariko xaguan miradore bat dago eta horko leiho batetik ateratako argazkia iluntzen ari dela».



Karlos Mendibil. «Butrongo gaztelua. Ez dago oso urruti joan beharrik oporretan, gure Euskal Herrian paraje zoragarriak ere bait ditugu».



Alain Fernandez Ariztimuño (Leitza). «Uda honetan Argentina aldean izan gara, eta hementxe bidaltzen dut Iguazuko ur jauzien argazki bat».



Ainara Zubeldia Aizpuru (Ibarra).
«Argentinako leku eder guztietaik bat aukeratu behar eta hemen Perito Moreno glaziarraren argazkia».

LIZARTZA ▶ POLITIKA

Lizartzako istiluen aurrean «irakurketa ezberdinak» egin dituzte eskualdeko politikariek

Ertzainek porrekin hainbat lagun jo zituzten larunbatean, haietako bati buruan zauria egin zioten, «hiru grapa jarri behar izan zizkiotelarik»



Ertzaintza jendea bultzaka banandu nahian. A. CANELLADA/A. PRESS.

ASIER IMAZ

Iragan larunbaterako ezker abertzaleak manifestazio deialdia zabaldu zuen, *Otaola Kanpora. Errepresiorik Ez!* lelopean. Espainiako Auzitegi Nazionaleko Fernando Grande Marlaska epaileak egun berean ekitaldi debekatu zuen. Lizartzako ANV-EAeko kideek, manifestazioa beharrean, prentsaurrekoa ematea erabaki zuten.

Udaletxe aurrean bi pertsona mahaiak jartzen hasi ziren prentsaurrekorako. Ertzaintzak gerturatu eta identifikatze lanetan hasi ziren, «ekitaldi hau debekatu dago» esanaz. Azkenik, prentsaurrekoa Zahar Etxean eman zuten ANV-EAeko kideek.

Eusko Gudariak abesten hasi zirenean kanpoan zeuden

200 bat lagun, ertzainak porrak atera eta jendea banandu nahian kolpeka hasi ziren. Lekukoe «taberna eta portaletan sartu zirela» aipatu zuten. Kolpeek zauri larriak sortu ez bazuten ere, pertsona bati «buruan hiru grapa jarri behar izan zizkioten». Egoera lasaitu zenean, ertzainek *Alde hemendik Espainia aldera bezalako* oihuak entzun behar izan zituzten.

ANTTON IZAGIRRE
EZKER ABERTZALEA

«Sinestezina da gertatzen ari dena»



«Nire ikuspuntutik erabat salagarria da, lehenik eta behin, adierazpen askatasunaren

alde deituriko manifestaldia debekatu izana. Inongo ordezkaritzarik eta babes demokratikorik ez duen talde batek hartu du alkatetza Lizartzan, herritarren borondatea alde batera utzita, Espainiako estatuak egin duen lege batean oinarriturik. Nire ikuspengitik Lizartzan gertatzen ari dena erabat gertaera faxista da; Espainiako PPK erabat molde faxistaren bidez agintzen duelako. Hori gutxi ez balitz, are eta larriagoa iruditzen zait Eusko Jaurlaritzak babesa ematea gertatzen ari den horri, eta hain zuzen ere, salaketa demokratikoa eta erabat baketsua egin nahi denean, Ertzaintzak aukera guztiak ezabatu eta euskaldunen aurkako erasoari bide ematea. Inongo demokrazietan sinestezina da Lizartzan gertatzen ari dena».

ANDONI ITURZAETA
EUSKO ALKARTASUNA

«Egoerari buruz galdetu behar da»



«Inori ez zaio gusztatzen Lizartzan gertatu ziren istilu ematea. Ertzainak eduki zuen jarrera, finean tokatzen zitzaiena izan zen. Herrri honetako eraketa instituzionalak epaile batek esaten duena egitea da. Epaileak ere legearen arabera irakurketa egiten du. Egoerari buruz galdetu behar genukeela uste dut. Zer gertatzen ari da Alderdien Legearekin? Nork dauka ardura? Es-

painiako erabaki edo lege ez demokratiko bat dela esatea erraza da, baina ardurak leku eta maila ezberdinetan daude. Ezin da alderatu ETaren jarduerak suposa lezakeena beste alderdiek eduki lezaketena. Erantzunkizuna espainiar gobernuarena bada, baina batez ere ETaren jarduerarena azpimarratuko nuke».

ANJEL YAÑEZ
ALDERDI POPULARRA

«Alkateaz hitz egin beharko litzateke»



«Ertzaintzaren jarrera ezin dut baloratu, informaziorik ez dudalako. Hala eta guztiz ere, pentsatzen dut edo pentsatu nahi dut, Ertzaintzak legearen barnean jokatu zuela eta esku dituzten bitartekoekin. Ziurrenik, euren erantzuna, aurre egin beharreko egoeraren neurrikoa izan zen. Zoritxarrez, herrialde honetan denok badakigu nondik datorren kontua, legea errespetatu nahi ez duen tolerantziarik gabeko jende biolentzia dago. Horregatik, larunbatean Ertzaintzak egin zuena edo egin ez zuenaz hitz egitea baino, nahiago nuke Lizartzako gure alkateak bere lana lasai egiteko indar publikoaren beharra izatearen inguruan. Oihartzun edo interes gehiago eduki beharko luke alkatearen egoerak. Zilegitasun osoz edo ez baldin bada zilegitasunez ere, nik baietz uste dut, beti legea errespetatuz egin

Otaola guztion ahotan

Atzokoan ere Lizartzako alkatea Regina Otaola (PP) albiste izan zen. Kasu honetan bi arrazoi ezberdinengatik. Lehena, atzo goizean ezohiko udalbatzar batean, Lizartza Espainiako Herri eta Probintzien Federazioan sartu zutelako, bere buru den udalaldearen erabakiz. Ordu erdi eskas iraun zuen udalbatzarra. Otaola berak adierazi zuenez, «Lizartza dagoeneko Eudelen parte da eta Espainiako Herri eta Probintzien Federazioan sartuta Lizartzako Udalaren presentzia indartuko du Espainiako udalerrien baitan».

Albiste izateko bigarren arrazoia, interneten Regina Otaolak sortu berri duen bloga izan da. Hain zuzen ere, Espainiako Libertad Digital agerkari eskuindarrean, Regina Otaolak *Lizartzatik* izeneko txokoa sortu du, erdara hutsean. Bertan, bere iritziak irakurtzeaz gain, komentarioak egin ditezke. Horien artean, «esker-rrak» eman dizkiote askok, «ausarta», «heroia» eta antzeko hitzak zuzentzen dizkiote beste askok Otaolari. Blogaren helbidea, honako hau da: www.libertaddigital.com/6680/bitacora/reginaotaola/.

dezakeena edo egiten uzten diotenaz hitz egin beharko litzatekes».

ANTTON KARRERA
EZKER BATUA

«Gauza horietaz nahiago ezer ez esan»



«Ertzaintzaren jarreraz nahiago ezer ez esan. Interpretazioak ez direlako egoki egiten».

hilberria ▶

Joxepa Esnaola Intxausti
(Ramon Esnaolaren alarguna)

HERENEGUN hil zen, 98 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkapena hartu ondoren.
-Goian bego-

Goian da leku bat, zorionez betea zuk zabalik zeneukan bertako atea zure atsedena da, haruntza joatea agur eta muxu bat Amona maitea.

Zure sendia, bilobak eta birlobak

Haren animaren alde otoi bat eskatzen dizute eta arren etor zaitzela GAUR ASTEARTEA, arratsaldeko SEI T ERDIETAN, Bidaniako SAN BARTOLOME parroki elizan, GORPUBERTAN dela egingo den hiletara. Aldez aurretik, milia esker.

helbidea ▶ Egi - Auzi etxea, 2. ez.

oharra ▶ Gorpuz beila Tolosaldeko Funeraria Vascongada Tanatorioan dago, gaur arratsaldeko 18:00ak arte. Hileta elizkizunaren aurretik, Erosario Santua errezatuko da.

BIDANIAN, 2007ko irailaren 25ean

HILBERRIAK
URTEURRENAK
ESKERTZAK

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

HITZAK GIPUZKOAN
120.000 IRAKURLE

ESKELAK

19:00ak arte hartzen dira

tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info

Tel.: 943 65 56 95



KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

LEITZA ▶ PILOTA

San Mateokoarekin bi dira Bengoetxeak eta Barriolak irabazi dituzten torneoak

Julian Iparragirre pilotan adituak «oso bikote polita» osatzen dutela adierazi du, eta Abel Barriolak jasotako sariarekin «erabat ados» dagoela gehitu du



Arrabola, zikloia... eta horrelakoak izan dira hedabideetan pilotarietaz hitz egiteko aukeratutako irudiak. J.S.

NAIARA GARZIA

Barriolak eta Bengoetxea VI.ak San Mateo Torneoa irabazi zuten herenegun. Barriolak, gainera, beste sari bat ere eskuratu zuen, torneoko pilotari one-

na izendatu baitzuten. Igandekoarekin leitzarrek jada bi torneo irabazi dituzte, Donostia Hiria ere irabazi baitzuten, igandean Logroñoko Adarraga pilotalekuan lortutako emaitza berarekin, gainera, 22-11.

Olaizola II.a eta Lasa III.a lehenengo 8 tantoetan irabazten hasi ziren arren, Barriola jokolan sartu zenean ez zuten ezer handirik egiteko aukerarik izan eta hortik aurrera bai Barriolaren bai Bengoetxea

VI.aren jokia nabarmena izan zen eta ederki aritu ziren elkarlanean.

Julian Iparragirre pilota adituak igandeko finalean biek «oso maila ona» eman zutela azaldu du. «Maila horretan jokatuta ez da erraza beraiei irabaztea, baina nik esango nuke igandean batik bat aurkariek ez zutela egunik onena izan. Aimar Olaizolari ez nioke aitzakiarik emango, aukera oso gutxi izan zituen, baina nik uste Oskar Lasa ez zela ongi joan frontoira, edo ongi joan bazen, azkar egin zuen behera, eta nik uste eskuin eskua ez zuela ongi. Hauek partida erraz irabazteko aukera ikaragarria eman zieten Oinatz Bengoetxea eta Abel Barriolari».

Leitzako pilotariei dagokienez, «oso mementu onean» daudela adierazi du Iparragirre. «Uda honetan oso joko ona egin dute, eta biak herri berekoak izateak eta frontoetik kanpo lagunak izateak lagundu egiten du. Horrek pizten du beraien ontasun hori».

Abel Barriolari emandako sariaren inguruan Julian Ipa-

rragirrek ere Abel Barriolari emango liokeela azaldu du. «Hori oso ongi hartzen dut, nik ere gauza bera egingo nuke. Guk Euskadi Irratian puntuak eman behar izaten ditugu, eta igandean eman behar izan banu, Abel Barriolari emango nioke, Oinatz Bengoetxeari mehezimendurik kendu gabe, oso ongi jokatu baitu. Baina partidako pisua gehienbat Barriolak eraman zuen, erraz dominatu zuen eta berak sortu zizkion Oinatz Bengoetxeari tantoak egiteko aukerak. Ados nago Abel Barriolari sari hau ematearekin».

Bikote mistoak

Abel Barriola Aspe enpresakoa da eta Oinatz Bengoetxea, aldiz, Asegarcekoa, eta Julian Iparragirre enpresa ezberdinetako pilotariek osatutako bikoteen inguruan mintzatu da, baita honek dakartzen ondorioen inguruan ere. «Txapelketetan nahiago dut pilotari bakoitza bere enpresakoekin jokatzen ikusi. Enpresa ezberdinetakoak pare bat torneotan elkarrekin jokatzen ikustea ez zait axola, baina hortik aurrera...». Enpresa ezberdinetako pilotariek osatutako bikoteak enpresen arteko lehia gutxitzen dutela dio Iparragirre. «Pilotariak nahasita jokatuz gero, enpresari ez zaio axola edozein pilotarik irabazita ere, baina bakoitzak bere pilotariekin jokatuz gero emozio gehiago du. Adibidez, enpresa bateko pilotariak 3 txapelketa irabazten badituzte eta besteek batere ez, hauek gehiago saiatu beharko lirateke».

LEITZA ▶ FUTBOLA

Aurrerak berdinketa lortu du Subizaren aurka, 1-1eko emaitzarekin

Leitzarrek denboraldi honetan jokatutako 3 partidetatik bietan berdindu egin dute

N. GARZIA

Larunbatean Aurrerak Subiza taldearen aurka jokatutako norgehiagokan irabazterik izan ez zuen arren, 1-1eko emaitza lortu zuen.

Aurrerako arduradunek azaldu dutenez, «aurreneko zatian haize handia zebilen eta gainera haien zelaia ere ez da oso eroso guretzat, haiek ohituta egon arren. Lehenengo za-

tian aukera pare bat izan genituen eta Jon Arangoak gola sartu zuen». Halere, atsedenaldira iritsi baino lehen aurkariek ere beste gol bat sartu zuten, berdinketa lortuz.

Aurtengo denboraldia hasi denetik 3 partida jokatu ditu Aurrerak, lehenengoa 1-0 galdu zuen (Lagunak taldearen aurka) eta bigarrenean berdindu egin zuen Amaia taldearen aurka (0-0). «Orain maila altua-



Aurrerakoak entrenatzen. n.g.

goa dela nabarmena da. Atzealdean goazela ikusten da, 3 partidetatik 2 gol besterik ez dizkigute sartu, baina zentzu berean guretzat golak egitea ere ez da batere erraza».

LEITZA ▶ POLITIKA

ETAk eraildako kaboari omenaldia egin diote

11:30ean meza egin ondoren lore eskaintza egin zuten atentatua gertatu zen lekuan

ERREDAKZIOA

Atzo goizean duela 5 urte ETAk eraildako Juan Karlos Beiro Montes Guardia Zibilaren kaboari omenaldia egin zioten.

Ekitaldia 11:30ean hasi zen, herriko elizan ospatutako meza batekin. Ondoren, atentatua gertatu zen lekura bertaratuta ziren omenaldiarekin jarraitzeko asmoz eta bertan, lore eskaintza egin eta errespontua oitoztu zuten. Azke-

nik, guardia zibil batek hildakoaren omenez hitz batzuk esan zituen.

Atentatua 2002. urteko irailaren 24an gertatu zen, eta bertan Juan Karlos Beiro Montes hiltzeaz gain, beste hiru guardia zibil zauritu ziren.

Ekitaldietan hildako guardia zibilaren gurasoak, alarguna eta semeak bildu ziren, baita Nafarroako Barne Ministeritzako kontseilaria, Javier Caballero eta Foruzaingo burua, Alfonso Diaz ere.

ESKUALDEKO EGUNKARIA ▶ 2007ko irailaren 25a, asteartea ▶ V. urtea

GAURKO EGURALDIA goizez arratsaldez beroena **18** hotzena **12** BIHARKO EGURALDIA goizez arratsaldez

HITZA-KO BEZEROEN ARRETA ZENBAKIA **902 82 02 01**
 (balantzak argitzeko, harpidedun egileko...)

AGENDA ▶

DEIALDIAK

Asteasu. Datorren igandeko Alderdi Egunera Foronda-Gasteizera joateko autobusa antolatu du Asteasuko EAJk, 8:45ean abiatu eta 19:00etarako itzultzeko. Autobusa eta bazkaria, 20 euro. Izen-ematea, 943 691314 edo 685 751640 telefono zenbakietan.

Ibarra. Udaltzarrera, 18:00etan, joateko deia egun du Ibarra EAE-ANVK, Udalaren egoera salatzen.

Tolosa. Santa Maria parrokiako katekesian matrikula daitezke haurrek 18:00etatik 19:00etara. Katekesia urriaren 9an hasiko da, 18:00etan.

Tolosa. La Jara Zentroak bidaia antolatu du Extremadurara azaroaren 1etik 4era, Montanchez, Merida, Olivenza eta Almendralejo bisitatuz. Izen-ematea, 230 eurotan, elkartearen (675 70 76 19 zenbakia).

Villabona. Bezperako karta joko txapelketen finalerdiak izango dira Biltoki jubilatutako elkartearen 17:00etan, Hirugarren Adinaren Astearen barruan.

ERAKUSKETAK

Alegia. Juani Alkorta zizurkildarraren margolanak, upategiak eta paisaiak, ikusgai daude jubilatuen tabernan.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur
Tolosa. Azpiroz, L. Amaro azoia, 9. 943 675118.
Iruztun. Gastearena, M. Amaia kalea, 4. 112.

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta irizien erantzukizunik.



Lan zaila izan zuen epaimahaiak pintxo irabazlea hautatzerakoan. A.I.



Talo postuak ere ez ziren faltatu azokan. A. IMAZ

Piparraren inguruan, jaia

IBARRA ▶ Giro ezin hobea izan zen Ibarra Azokan herenegun; pintxo eta piperrada onenari sariak etxean geratu ziren

ERREDAKZIOA

Pipar usainak hartu zuen herenegun Ibarra. Egun osoan zehar herri txokotan postu ezberdinak jarri zituzten, protagonista nagusia Ibarra piparra izan zelarik. Eguraldia lagun zutela, jende ugari hurbildu zen herrira, bertako postuak-eta ikustera. Artisautza postuekin batera jakiak saltzen zituzten postuak izan ziren nagusi. Mokadutxoak dastatzeko aukera ere izan



Artisau postuez gain, gozogintza landu zuenik ere izan zen. A. IMAZ

zuten bertaratuek, piperraz eginikoak batik bat.

Ibarra Piparraren III. Lehiaketa Gastronomikoan, gainera, etxean geratu ziren. Hilario Arbelaitz, Matias Gorrotxategi, Roberto Ruiz eta Sonia Tapiak osaturiko epaimahaiak piperrada onenari saria Alberto Zubelzu eta Karlos Aretxaga ibarrentzat zela erabaki zuten. Pintxo onenari, berriz, J. Ramon Pikabeak eta Floren Altunak lortu zuten, Ibarra Xepia elkarteok.

AGURRAK ▶



URTE ASKOAN
 Sara Susin Markos (Tolosa), Gaur 6 urte. Familia guztiaren partetik.

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

▶ HITZAren egoitza Tolosa Araba etorbidea, 5 behea

▶ HITZAren egoitza Leitzan Udaletxeko bulegoa

hitza
 agurren tartea

Urtebetetzeak, urrezko etzeiak, ezkontzak, jaioberriak...

07-08 DENBORALDIA



BRUESA GBC
 LECHE RIO BREOGAN

OSTIRALA
28 iraila 20:30
 ILLUNBE

hitza

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZAK
 Bruesa-GBC / Leche Rio Breogan saskibaloitzaileen arteko partidarako lau sarrera pare zozketatuko ditu!

Parte hartzeko, deitu zenbaki honetara:
943 65 56 95 (Irailaren 26ra arte deitu (09:00-13:00))